

## **EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA ADMINISTRAZIOAN (Ekimenak eta emaitzak)**

Nahiz eta urte asko igaro diren euskara arlo juridiko eta administratiboan sartu zela, esan behar da nahiz eta euskaldun askoren eguneroko hizkuntza izan, gaur egun oraindik ez duela lortu bere eraginkortasun eta hedapen orokorra.

XII. mende aldera, euskararen erabilera administratibo ofizialaren hasierako aleak azaltzen hasi ziren eta 1980. urtea jarri behar da testu administratibo ezagunen jaio iturri bezala; besteak beste, udalen arteko euskarazko gutun ofizialen aleak XX. mendera arte.

Mende honetan, udalen arteko gutuneria ofiziala aipatzean, ez da ahaztu behar ohiko hizkuntza (frantsesa edo gaztelania) alde batera utzirik, salbuespen modura erabiltzen dela euskara, mugaz beste aldekoekin idatziz ulertu ahal izateko.

XIX. mendea, ordea, iluna dela esan daiteke. Izan ere, alde batetik, izugarria delako XIX. mendearen bukaerarako dagoen garapen ikusgarriak ez duela jarraipenik, euskararen erabilera administratiboa ezkutatuz doalako Frantziako Errepublikan eta Hegoaldeko susperraldia ez baita dirdiratsua. Han hemen, herri-ordenantza batzuk, akta batzuk, gutun administratibo batzuk, zenbait kontratu, euskara Lore Jokoetan,...

XIX. mendeak ikusten du euskararen erabilera sinbolikoaren jaiotza. Bizkaiko Batzar Nagusietan hainbat urtez euskara dabil, baina ez dute ezer egiten hori izan dadin bileretako lan hizkuntza.

1890. urtetik aurrera, diputazioek, udalek eta beste erakunde publiko batzuek arau, bando eta beste zenbait testu administratiboek, noiz-behinka euskaraz eta erdaraz argitaratzen hasten dira.

Euskara batuaren oinarriak 1968. urtetik aurrera ezarri ziren. Baina, jenderik euskaldunena administrazio gune batean sartzen zenetik, bere erdararik ohikoena erabiltzen hasi zen. Ondorioz, euskara guztiz kanpo zegoen mundu juridiko-administratiboan.

Arazo hori gainditzeko, hizkuntza apalduak berreskuratu behar zituen erabilera espazioak, batez ere, administrazioak. Denek amesten zuten Euskal Herri bat legea eta administrazioa euskaraz izango baitziren. Horrez gain, agintari politikoen helburua zen administrazioan euskaraz egingo zuen norbait izendatzea. Horretarako, ikusita nolako egoera zegoen (gehiena erdaraz baitzegoen idatzita) itzultzaileei uzten zaie lekua itzulpenak egiteko. Horrela bada, hasierako urte haietan itzultzaile batzuen esku geratzen da hizkera-juridiko administratiboa sortzeko eta garatzeko eginkizuna.

1989an HAEEK/IVAP-k antolatuta, Administrazio Hizkera eta Terminologiako Jardunaldiak egin ziren, bertan entzun ahal zirelarik garai hartako iritzi-emailerik ospetsuenak HAEEKoak, UZEIkoak, unibertsitatekoak, funtzionarioak, abokatuak, notarioak, euskaltzaindiakoak, terminologoak, itzultzaileak, ...

Egoeraren gaineko azterketa egin ondoren, ardura zutenen aldetik, konponbidea bilatzeko konpromisozko hitzak entzun ziren. Ondorioz, esan daiteke nolabait, hori izan zela bidea handik aurrera, pixkanaka-pixkanaka, testu juridiko administratiboen arteko desberdintasunak gutxitzearen ondorio.

1989an Eusko Jaurlaritzak hizkuntza eskakizunen dekretua (urriaren 17ko 224/1989 Dekretua, herri-administrazioetan euskararen erabilera normaltzeko plangintzari buruzkoa) eman zuen.

Dekretu horrek aideratu zituen egintasmu eta xedeak ari dira han hemen gauzatzen: batzuetan egoki, besteetan, ordea, ez hain ondo. Baina, esan behar da marrazten hasiak direla euskararen erabileraren plangintzaren bide-lerroak administrazioan.

Dekretuari 1990-1995 bosturtea jarri zitzaion epe bezala ikusteko ea administrazioan aurretik ezarritako plan hori gauzatu bazuen edo ez, hau da, garai honetan dekretuak jarritako gutxieneko mugak betetzen ari ote ziren.

Esan beharrik ere ez dago, noski, egun Euskadiko Autonomi Elkarte (EAE) osatzen duten hiru herrialdeetako administrazio-erakundeei buruz bakarrik ariko garela azalpen guztiotan.

Zer da orain bere erdibidea betetzen duen plan horren muina?

- Administrazioak bere mende dituen lanpostu guztietan halako maila batean edo bestean euskaraz jakin beharra ezartzen du (hizkuntza eskakizuna, alegia)
- Inguruko euskaldun biztanle kopuruaren neurrian, lanpostu horietan diren herri-langile batzuk ezinbestean erakutsi beharko dute, epe baten barruan (derrigortasun-data baten barruan, alegia), beren lanpostuan eskatutako maila horretara helduak direla
- Administrazioak aurrez izendatuak ditu eskakizun hauek bereziki bete beharreko esparruak (atal elebidun izendatutakoak, alegia), eta horiek dira gizarte zerbitzuak oro har, hala nola ongizatea, kultura, gazteria, kirolak, osasuna...

Baina, hizkuntza eskakizunak oinarri dituelarik, plan honen sistema zein den ulertzea da beharrezkoena.

Eusko Jaurlaritzak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1992ko azaroaren 24ean gobernu kontseiluari aurkeztutako txostenari dagokionez, hasteko, esan beharra dago, horrelako hedadura duen plan bati buruz harrigarria dela zein datu-iturri gutxi dagoen, garai honetan ez baitzegoen ezer argitaraturik.

Hizkuntza eskakizunen dekretuak 25.398 langile dituzten administrazio-erakundeak harrapatzen ditu: udalak, diputazioak, gobernua eta guzti hauen mende diren erakundeak (salbu, irakaskuntza, osasun-zerbitzuak eta Ertzaintza).

Baina, esan behar da, badirela oraindik beren lanpostuetan hizkuntza eskakizunik ezarri gabeko udalak. Ez dira, itxuraz asko, baina EAeko populazioaren %10a osatzen dute: udal haundi samarrak dira, beraz, plana oraino onartu ez dutenak.

Bistan denez, ez dute langile guzti-guztiek ezinbestean erakutsi beharko beren lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren mailara helduak direnik: %31,2k bakarrik dauka betebeharrak hori 1990-1995 aldi honetan. Beraz, planak eragin zuzen eta garbia 7.922 herri-lanpostutan izango du.

Bistan da derrigorrez bete behar diren hizkuntza eskakizun gehienak, hiru laurden baino gehiago, administrari eta teknikarien artean daudela banatuta. Oso gutxi dira derrigorrezkoak behe-mailako lanpostuetan, gutxiago oraindik administrazioko goi-mailako arduradunenetan.

Oraingo plana bost urtetarako denez, urtez urte modu orekatuan dira betetzekoak derrigortasun guzti horiek.

Euskaldun populazioaren proportzio desberdinean, herrialde bakoitzean derrigor bete beharreko hizkuntza eskakizunen neurria, baita ere, desberdina da: garai honetan, Bizkaikoak dira oraindik planik onartu ez duten udal haundi samar horiek. Gainera, euskal administrazioari bere antolakuntza eta dirubideetan ahalegin handia dakarkio betebeharrak horri aurre egiteak.

Hala ere, bi faktore izan behar ditugu gogoan:

- Dekretuak norbere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna derrigor bete behar izateaz salbuesteko egoera batzuk jarri zituen (nagusiki, 45 urtez goitik izatea); egun, plana onartuta duten erakunde guztietan langilegoaren ehuneko jakin bat salbuespen horretara bildua dago
- Hutsik diren lanpostuak: lanpostu horietan derrigorrezko hizkuntza eskakizunak ez du indarririk izango langileren bat bertaratu artean; orduan, lanpostu horren jabe egin nahi duenak erakutsi beharko du eskakizunaren maila baduela

Errazagoa da jakiten oraino plana onartu gabeko udalen eragina: lanpostu guztien %5,6a da. Baina kasu: Bizkaiko Ibar-Ezkerraldeko udalak omen dira, nagusiki, egoera horretan daudenak.

Bidezkoa litzateke, bestalde, gertakari larri honen esanahi politikoa gehiago ikertzea, Ibar-Ezkerraldeko udal handietan nagusi diren alderdi politikoak zein diren kontuan izanda.

Baina, orain arte nola joan dira gauzak? Bi bide ditugula esan daiteke hizkuntza eskakizunak ezartzen hasi zirenez geroztik ibilitako bidea nolakoa izan den ikasteko:

- Euskara ikasi edo hobetzeko ikastarorik egin izan duten herri-langileek nolako emaitzak lortu dituzten
- Beren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketetan parte hartu izan duten herri-langileek nolako emaitzak lortu dituzten

Bestalde, herri-langileek norbere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketetan izandako emaitzak nolakoak izan diren aztertu daiteke. Bost urteko plangintzaldi hau hasi zenez geroztik hiru azterketa-deialdi orokor izan dira EAEko administrazio-erakunde guztietako langileentzat eta bi ondorio gelditzen dira begi bistan:

- Nork bere lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzea «behetik gora» datorren gertakaria dela, hau da, lan-maila apalenetatik ardura haundiena duten mailetara
- Lan-maila teknikoetan eta zerbitzuetako arduradun-mailatan emaitzak batez bestekoaren azpitik gelditu dira beti, eta badirudi joera gero eta beheranzkoagoa dela hizkuntza eskakizun hauetan

Benetan kezkatzekoa da, bereziki, hirugarren hizkuntza eskakizunaren egiaztapenak hartu duen bidea. Gogoan izan behar da hizkuntza eskakizun honetan daudela unibertsitate-mailako titulazioa behar duten lanpostu gehienak, hau da, administrazioaren iharduna mugiarazten duten lanpostuak. Gainera, hizkuntza eskakizun honetan huts egiteak administrazioan euskararen normalkuntzak hartu duen sistema osoa kolokan jar dezake.

Hizkuntza eskakizunen inguruan, egunkari eta gainerako hedabideek Eusko Jaurlaritzan osatzen duten bi alderdien asmoa kaleratu zuten: administrazio-erakundearen hizkuntza eskakizunak ezartzeko era eta epe-mugak malgutuko dituen dekretu berriren bat onartzeko.

Dekretu horren gaineko iritziei dagokienez, honako hau esan daiteke:

- Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea: orain arte egiaztapen-azterketak HAEE-IVAPEk bakarrik egiten ahal zituen; dekretua onartzen denean edozein administrazio erakunde izan daiteke bere langilearen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeke azterketaren dei-egile
- Salbuespenak: hizkuntza eskakizunen derrigortasunaz salbuetsirik izateko bidea lasaiagotu egin daiteke
- Egiaztapena lortzeko epea: luzapen-sistema bat ezarriko du dekretuak; horrela, norbere lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ez baina aurrekoa egiaztatuta duenak, urtebete edo bi urteko luzapena izan dezake
- Egiaztapenaren derrigortasuna: nahiz derrigorrezko izan, 4. hizkuntza eskakizuna duten langileei ez zaie egiaztatzerik eskatuko 1995a aurretik; hirugarrena egiaztatzea aski izango dute
- Egiaztatu gabekoak: hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke azterketa egin eta gaituzten ez dutenek bigarren aukera izango dute, hurrengo sei hilabeteen barruan

Azken zehaztasun bat ere esan behar da: aldibaterako xedapenetan, dekretu-asmoak aldizkari ofizialean argitaratu bezain laster jartzen du bere balio-indarra, bereziki derrigortasun epeak luzatze kontuetan.

Hizkuntza eskakizunak arrisku bidean Administrazio-erakundearen lanpostuetako hizkuntza eskakizunak ezartzeko lanetan modu bateko edo besteko ardura eta erantzukizuna dutenak eskakizunak ezartzeke ikusten dute datozen urteetako etorkizuna.

Horren arrazoi da, lehendabizi, administrazio-esparruko hizkuntza normalkuntzaren kontrol exekutiboa oso eskasa izan dela orain arte: alde batetik, lanpostuaren hizkuntza eskakizunak onartu ere egin ez duten erakundeak daude; beste aldetik, plana onartuta duten erakundeetako batzuk zuzen-zuzen doazela porrot egitera: erdibidera iritsiak garelarik, edo hizkuntza eskakizunen aplikazioan orain artean hartutako erabakien izpiritua goitik behera aldatzen dute, edo garbi dago udal eta diputazio askok ez duela behar lukeen mailaren laurdena ere erdietsiko.

Bitarteko ugariak dauzkate jarriak herri-administrazioek plan honetan; hori ez dago ukatzerik. Baina jende askorengan eragina daukaten halako planetan maiz gertatu ohi den bezala, helburuen lekuan bitarteko horiek jarri dira: hizkuntza normalkuntzaren alor honetan administrazioaren zeregin bakarra

hizkuntza eskakizunen derrigortasunak eta epeak betetzea da. Bestalde, ahalegin gutxi egiten da hizkuntza eskakizunak bete eta egiaztatu ondorengo egoeraz.

Zertarako nahi dugu halako edo bestelako eskakizuna gainditu duen horrenbeste langile, beren lana lehen bezainbatean erdara hutsez egiten jarraitu behar baldin badute? Administrazioaren ihardunetan euskara erabilazteko programak gutxi dira, eta daudenak oso mugatuak dira hedaturaz eta eragin-indarrez.

Guztira, EAE osoan hamarka langile gutxi batzuk izango dira halako erabilera programatan sartuak direnak. Ordea, badago, gauzak ederki asko egiten ari den udalik eta batz besteko emaitzetan bere burua isladaturik ikusiko ez duenik.

Gauzak horrela direlarik, dekretu honek ez du sakoneko arazorik konponduko, baina, geroratu egingo ditu. Izan ere, dekretu, horren eraginik handiena derrigorrezko hizkuntza eskakizunen egiaztapen-peak luzatzea izango da.

Jada erdibidera helduak garelarik, behar luke administrazioak pausaldi bat egin eta egindako urratsak aztertu. Horretarako, neurri zorrotzak hartu nahi balitu oinarri hauek izan beharko lituzkete gogoan:

- Arduradun politikoen erantzukizuna: euskal administrazioaren hizkuntza normalkuntza ez da berez etorriko; edo herri-erakundeek kudeaketa politikoaren ardura dutenek beren erantzukizunak aintzat hartzen dituzte, edo hizkuntza eskakizunen plana asmo onen ganbarara joango da laster
- Adostasun parlamentario eta sindikala: era berean, argi dago alderdi politikoen erantzukizuna epela izango dela hizkuntza eskakizunen sokaren atzetik datorren planaren inguruan adostasun sendo eta iraunkorra lortzen ez badu Jaurlaritzak

Akordio nazional bat behar dugu, ez bakarrik helburuetan, baita ere bitartekoetan. Era berean, herri-administrazioari sindikatuekiko solasbideak zabaldu eta finkatu behar dira, oinarritzko adostasun hori lan-arazoaren eremura ere ekartzeko.

- Hizkuntza normalkuntzaren gastuen kontrola: hizkuntza eskakizunen aitzakitan dirutzak zahutzea ezin dugu besterik gabe onartu, gehien gastatzen duen erakundea euskaltzaleena delakoan.

Euskararen normalkuntzak bere dirubideak behar ditu, ez gutxiago, ezta gehiago ere. Dirua eta lana eskas diren garaiotan, herri-ondasunak kontrolik gabe xahutzeroa doazen ekintzak ez dira erraz onartzekoak, eta alderdi honetatik ikusita, baita ere, dekretu hori txarra da.

Premiazko zeregina da, ondorioz, orain artean sortu izan diren erabilera-programak aztertu, hobetu eta hedatzea.

- Plana neurtzeko neurpideak: hizkuntza eskakizunen inguruan datu-eskasia kritikatu da eta beharrezkoa da hizkuntza eskakizunen planaren emaitzak ebaluatzeko neurpideak eztabaidatu, argitu eta erabiltzea.

Beraz, 1995tik gaur egunera arte, lortu diren emaitzak eta eman beharrekoak, honako hauek direla esan daiteke:

- Aldaketarik handiena historian zehar, Hegoaldean izan duela eta jarraitzen dagoela, kontuan izanik, eredu hau Nafarroarentzat eredu edo baliagarriagoa izan
- Euskarak inoiz baino presentzia zabalagoa eta sakonagoa daukala Zuzenbidean eta administrazioan; ondorioz; inoiz baino testu juridiko eta teknikoki espezializatuagoak ekoizten dira
- Irakaskuntza, ikerkuntza eta hizkeraren beste agerpenei dagokienez eta hizkera berezitu bati gagozkiolarik, esan daiteke orain (azken 10-12 urteotan) maila zientifikoko testu juridikoak izaten ari direla: unibertsitateko eskuliburuak, ikerkuntza artikulak, hizkera berezi baten

garapenerako ezinbesteko bermeak direlarik, berriak dira gure testu juridikoaren historian eta hizkera onen garapen autonomoaren sostengua neurri batean

- Belaunaldi berrietan, hainbat legelari eta herritarrek euskaraz baino erdaraz askoz hobeto egiten dutela; hala ere, esan behar da norberak euskaraz erdaraz baino erraztasun handiago izateak, ez duela esan nahi erdaratik libre dagoenik, ezagutzen diren hitzak, terminoak eta esateko moduak gaztelaniazkoak direlako
- Erabilera sinboliko hutsetik praktikarako ibilbidea luzea izan dela; nahiz eta honek onura askorik ez ekarri euskarari arlo juridiko eta administratiboan. Hala ere, hizkuntzaren erabilerak gorabehera politiko-sozial askoren menpe daudela esan behar da
- Kulturarekin eta hezkuntzarekin loturiko jarduera juridiko-administratiboetan, badagoela normaltasun maila bat, esan nahi delako euskara bilakatu dela lan-hizkuntza: arauen euskal bertsioa erabiltzen da, txostenak hizkuntza horretan egiten dira, eta erabakiak ere
- Arlo batzuetako eta besteetako garapen desorekatua: esan beharra dago, esaterako, administrazio zibilar dagokion hizkera, aski garatuak eta landuak daudela, baina beste batzuk, justizia administrazioari edo merkataritzakoari loturikoak oraindik ez direnak oso asko landu
- Itzulpenak gehiegi baldintzatzen gaituela: testu asko gaztelaniaz daudenak edo gaztelaniaz sortzen direnak itzultzen dira euskarara. Ondorioz, itzulpengintzari aurre egiteko daukagun irtenbide bakarra da euskara lan-hizkuntza bilakatzeko. Baina arazo onen errua ez daukate soilik agintariek baita ere, partikularren artean, enpresetan, merkataritzan, eskriturak egiterakoan egiten den euskara apurra ia beti itzulpenaren emaitza izaten baita
- Batasun maila askoz handiagoa dela, baina, orain badaudela egile bakoitzaren banakako zenbait eredu
- Euskalterm: terminologiari dagokionez, hau bilakatu da datu-base nagusienetarikoa, nahiz eta oraindik egun, badagoela jendea ez duena hainbeste ezagutzen eta ondorioz, erabiltzen
- Legelarien eginkizun nagusia: euskal legelariak benetan eta praktikan euskara erabiltzen badute ulergarritasuna, segurtasun juridikoa, terminologia-batasuna etorriko da edo etor daitezke, bestela ez. Premiazko lana da eragile juridikoen euskara gaitasuna emendatzea. Lan tresna (esaterako administrazioa) hizkuntza duten lanbide horietan ez da nahikoa Euskaltzaindiaren Arauak ezagutzea: datu-base berezituak erabiltzen eta hornitzen trebe izan behar du, eta hori guztia egiten den bitartean, etengabeko harreman-sareak landu beharko dira mundu juridiko euskalduneko beste eragile eta kideekin hizkeraren batasuna eratze aldera.